

ARANZADIKO ERAZTUNTZE BULEGOKO DOKUMENTUAK

<p>HEGAZTI NEGUTARRAK MONITORIZATZEKO ERAZTUNKETA-GUNEA (EMAI PROGRAMA)</p>
--

Bertsioa: 2018ko urria.

Dokumentu hau honela aipatu:

Aranzadiko Erantzuntze Bulegoa, 2018. Hegazti negutarrak monitorizatzeko eraztunketa-guneak (EMAI programa), 2018ko ekaineko bertsioa. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia.

EMAI PROGRAMA

Laginketa gune iraunkorretan (LGI, ingeleraz *Constant Effort Sites, CES*), hegazti populazioak sistematikoki monitorizatzeko helburuz, aldizka eta era araupetuan egiten da lan. [1]Eratzunketa negu-garaian egiten denean, LGI-etan lortutako datuak hegazti negutarren populazioen demografia eta dinamika aztertzekeo analisiak garatzeko erabiltzen dira. Analisisiek, populazio hauen tamaina, egitura eta biziraupena neurtzerakoan balio handia daukate. Beraz, LGI-etan lortutako datuak ikertutako populazioen kontserbazio egoera zehaztekeo eta egoera horren arrazoiak azaltzeko erabili daitezke [2-5].

Europa hegoaldea kontinente iparraldean ugaltzen diren espezie askorentzako negualdi eremu garrantzitsua da. Kliman, lurzoruaeren erabileran eta giza-jardueretan gertatzen ari diren mundu mailako aldaketen aurrean, populazioen joera demografikoa eta negualdiako espazio-banaketan gerta litezkeen aldaketak neurtzeak berebiziko garrantzia dauka.

EMAI programaren (Hegazti Negutarren Monitorizaziorako Eratzunketa-guneak) helburua, antzeko programetan bezalaxe, neguan aurki daitezkeen hegazti espezie arruntenen (paseriformeak eta antzeko taldeak) populazioen aldagai esanguratsuenak epe luzean neurtzea da:

- Populazio tamaina.
- Adina eta sexuaren araberako populazioaren egitura.
- Biziraupena.

Helburu hau gauzatzeko, EMAI programaren baitan, parte hartu nahi duten Aranzadiko eratzunleek kudeatutako Laginketa Gune Sarea osatuko da. Programa honetako prozedurak gainera, antzeko programen metodologiarekin bat egiteko aukera ematen du, lortutako datuak bateragarri bilakatuz eta horrela penintsula zein kontinente mailako konparaketak baimenduz.

IKERKETA EREMUA

Aranzadiko erantzunleek beren jarduera garatzen duten edozein leku, Espainia barruan.

EMAI programaren helburua, hegazti negutarren populazioak ondo mugatutako ekosistema egonkorretan monitorizatzea da. Beraz:

- Proiektua denboraldi baterako denez, epe luzean, aukeratzen diren habitatak denboraren zehar egonkorrak izan behar dira, hau da, epe luzean bai natura (beste estadio baterako trantsizio azkarreko ekosistemak: etapa klimatikoak edo suntsipen prozesuak) bai giza-arrazoiak (habitataren suntsipena etab.) direla eta aldatuko ez direla baieztatu behar da. Hortaz, garatzen ari diren ekosistemak, adib., heldutasunik gabeko basoak edo ur-landaredia garatzear duten hezegune sortu berriak, etab. ekidin behar dira.
- Bestalde, habitat homogeenok aukeratzen saiatu behar da. Hortaz, oso heterogeenok diren eta harrapaketak habitat zehatz bati lotzea eragotziko luketen lekuak ekidin behar dira.
- Lehentasunezko habitatak: lezkadiak, erreketan haltzadiak eta ibaiertzetako basoak, hariztiak, pagadiak, bertako pinudi eta izeidiak, bertako heskaiak, landak.

Laginketa gunea aukeratu ondoren, eta erantzunleak eskatuz gero, Aranzadiko Erantzunle Bulegoko aditu-batzorde bat lekuak EMAI proiekturako daukan kalitatea eta egokitasuna aztertzeko bertaratu daiteke. Batzorde hau, sareak ezartzeko gunea aukeratzeko,... gomendioak erantzunleari emateko prest egongo da.

IKERKETA GARAIA

EMAI programa, derrigorrez, abenduaren 1a eta urtarrilaren 31aren artean gauzatuko da. Urtero (neguro) 4 laginketa-jardunaldi egingo dira. Hamabostaldian behin laginduko da, nahi denean baina elkarren segidako bi laginketaren artean 6 eguneko gutxieneko epea errespetatuz. Honako denbora-tarte bakoitzean laginketa bat egin behar da: 01.12-15.12, 16.12-31.12, 01.01-15.01, 16.01-31.01.

EMAI programa a 2018 urtean jarri zen habian baina programa hasita egon arren, edozein momentutan gune berriak atxiki daitezke.

LAGINKETA METODOLOGIA

Laginketarako 16 mm-ko tartea eta 2.5 m-ko garaiera duten sareak erabiliko dira. Sareen luzera, tokiaren eta komenigarritasunaren arabera izanen da. Gutxienez 12 metroko luzeradun 10 sare erabiltzea aholkatzen da. Dena den, sare kopurua habitataren eta harrapaketa kopuruaren arabera izanen da; egokiena eguneko 30 ale harrapatzea izango litzateke baina habitat batzuetan kopuru hori lortzea oso zaila izan daiteke. Sare kopurua kontrolagarria izan beharko da eta kokapenak laginketa gunean aurki daitezkeen hegazti gehienak harrapatzea izan behar du helburu. Gainera, baso-ekosistemetan, basoko maila garaietan bizi diren espezie eta norbanakoen laginketa burutzeko asmoz, sare garaiak jarriko dira.

Amuen erabilera galarazita dago, bai biziak, zein tresnerian bitartezkoak, beraien eragina datuetan kontutan izanik (erreklamoaren erakargarritasuna ezberdina da sexua edo adinaren arabera, edo hegaztiaren egoera fisikoa, eguraldia, eta abarren arabera). Gainera, eta ahal den neurrian, hegazti asko bateratzen dituzten behin-behineko ur-eremuen ondoan (iturriak, potxingoak,...), sareak jartzea eragotzi egingo da.

Egunsentian hasten denean, laginketak 4 orduko iraupena izango du; aitzitik, laginketa ilunabarrean egiten bada ilunabarra baino 2 ordu lehenago hasiko da (lotarako lekuak sortzen diren habitatetan, lezkadietan adib., metodologia hau gomendatzen da). GARRANTZITSUA: laginketa ordutegia zein izango den erabakitzen denean, proiektuak irauten duen bitartean, ordutegi bera mantendu beharko da, hots, eraztunketa guneek ezingo dute ordutegia aldatu.

Sareetatik ordu erdiro edo gehienez orduro pasatzea gomendatzen da. Laginketa guneak eguzkia atera baino lehen edo ilunabarra baino bi ordu lehenago operatibo egon behar du (sareak eguzkia atera baino lehen edo ilundu baino 2 ordu lehenago irekita egon behar dira).

Ale bakoitzari adina (EURING kodea) eta sexua zehaztuko zaizkio eta hegoa, P3a eta tartsoa neurtzeaz gain, pisua, gantza eta giharra ere neurtuko dira. Honez gain, hegazia mudan dagoen ala ez apuntatuko da. Berreskurapenen kasuan, adina, pisua, gantza eta giharren zein mudaren egoeraren oharrak hartuko dira. Gainera, ale bakoitza zein saretan harrapatu den ere apuntatuko da.

LAGINKETARI ESKAINITAKO ESFORTZUA

Behin eraztuntze gunea zein izango den erabakita dagoela, sare kopurua eta kokapena beti berdina izango dira, EMAI egitarauak dirauen bitartean, behinik behin. Horregatik, sareen kokapena EMAI programa hasi baino lehen balioztatu beharko da, programa hasi ostean ezin izango baita kokapenik aldatu.

INFORMAZIOAREN ARGITARAPENA

EMAI programaren baitan jasotako datuak populazio-joera, egitura eta biziraupena zehaztu eta ebaluatzeko asmoz, ikuspuntu zientifiko batetik aztertuko da. Azterketa hauen emaitzak artikulu eta txostenen bidez argitaratuko dira eta kongresu, mintegi etab.-etan ere zabalduko dira.

Gainera, urteko emaitza esanguratsuen berri emateko asmoz, Aranzadiko Eraztunze Bulegoak urtero dokumentu bat argitaratuko du. Datuen analisi eta EMAI berriak dokumentuaren idazketa lanak Bulegoak zehaztutako batzordeak burutuko ditu. Era berean, nahi izanez gero, gunea bakoitzeko arduradunek euren emaitzak nahi duten moduan argitaratu ahal izango dituzte.

Gunea bakoitzeko arduradunak datuak Eraztuntze Bulegoko Idazkaritzak zehaztutako epean eta normalizatutako Excel dokumentuan bidaliko ditu.

KONTAKTUA

EMAI programaren baitan LGI bat ezarri nahi duen oro, Aranzadi Eratzuntze Bulegoko Idazkaritzarekin harremanetan jar daiteke, bai bere posta helbidea erabiliz (ring@aranzadi.eus) edota ondorengo telefonoetara hots eginez, (616268114 edo 618277227).

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA.

1. Ralph, C.J. and E.H. Dunn, *Monitoring bird populations using mist nets*. Studies in Avian Biology. Vol. 29. 2004.
2. Baillie, S.R., *Integrated population monitoring of breeding birds in Britain and Ireland*. Ibis, 1990. **132**(2): p. 151-166.
3. Peach, W.J., S.T. Buckland, and S.R. Baillie, *The use of constant effort mist-netting to measure between-year changes in the abundance and productivity of common passerines*. Bird Study, 1996. **43**: p. 142-156.
4. Peach, W., S. Baillie, and L. Underhill, *Survival of British Sedge Warblers *Acrocephalus schoenobaenus* in relation to West African rainfall*. Ibis, 1991. **133**(3): p. 300-305.
5. Peach, W.J., S.R. Baillie, and D.E. Balmer, *Long-term changes in the abundance of passerines in Britain and Ireland as measured by constant effort mist-netting*. Bird Study, 1998. **45**: p. 257-275.